

INDUSTRIA 4.0, ETA KULTURA?

Lehengo urriko egun batean, D. Vasco egunkarian (6-10-19) Donostiaren etimologia azaltzen zuen latin irakasle batek: Domus Ostiae. Sada aita-seeek, 'Historia de San Sebastian' liburuan (11. orrialdea) azalpen desberdinak ematen dituzte. 'Dominus ostianus' Erroma ondoko portuan bezala, langile ofizial bat, egon zitekeen hemen ere. Legenda bat ere gogoratzen dute: Ostia Erromano portu horretan Done Sebastian, kristau martiria, hobiratu omen zuten.

Kontu hau argitzeko, badago Erdi Aroko agiri bat. Martin, Iruñeko gotzain batek 1390ean baimena ematen dio Andre Mariaren parrokiako apaiz bati eliza bat eraikitzeko 'prope villam sancti sebastiani'. Urte horretako urtarrilaren 10ean sinatu zuen agiri hori. Mitxelenak 'Apellidos Vascos' liburuan (121-122) honelako azalpena ematen du, jakinda santuei latinez 'dominus' ere deitzen zieten. Beraz, 'ecclesia edo conventus domini sebastiani' zen izen ofiziala eta orduan aldaketa hauek gertatu zitezkeen: do(m)ni sebastiani > *dona sa(b)astia > *donasastia > donastia > donostia. Segur aski asimilazio bat gertatu zen garaiko ahozko erabileran eta lehenengo silabak doazentua zuen. Gogoan hartu behar dugu euskaraz 'domini' hori toponimo batzuetan gorde dela: domini Stefani > Doneztebe, edo 'domini Joannis > Donibane. Latinezko izenean aurretik 'ecclesia edo conventus eta genitiboa egoten da. Sada ematen duen etimologia 11. orrialdean ez da fidagarria.

Aurrera jarraituz eta gaia aldatuz, 'Patria' nobela entzute-tsuak ere badu gauza bitxiren bat edo beste. Gaztela aldeko epaile zorrotz batzuek nazioaren saria eman diote nobelari.

Amaieran baditu orrialde bi 644-645, eta hor jartzen du idazleak erabiltzen dituen euskal hitzen zerrenda. Nik irakurri nituen eta hurrengo gauza bi aurkitu nituen. Hemengo epaileek ere Euskadi saria eman zioten. Euskal hitzen zerrenda horretan halako batean agertzen da ‚cipayo‘ (sic). Entzunda eta irakurrita nuen hitz hau eta beronen adierazi mespretxagarria ezaguna nuen. Baina ez nekien euskal hitza zenik. J. Coromines jaunaren ‚Diccionario Crítico Etimológico...‘ hiztegiara jo nuen. Azken argitalpenean J. A. Pascual jaunak ere esku hartzen du. Eta Manuel Seco eta Olivia Andres-ek osatutako beste hiztegi bat ere begiratu dut. Batek nondik datorren azaltzen du. Persiera zaharrean ‚sepāhi‘ hitzak ‚soldado eta jinete‘ adierazten du. Hortik Indiara igaro zen eta han erabili omen zuten Bretaina Handiaren alde zeuden indiar gudari eta poliziak, eta beste indiar herritarrak erasotzen zituztenak izendatzeko.

Bestalde, izen honek ibilaldi luzea izan zuen. Indiara portugaldarrak iritsi eta lurralde bat menperatu zutenean ‚sipayo‘ bihurtu zuten. 1857-59 urteetan Indiako arazo politikoetan zabaldu zen. Eta hortik Portugalera iritsi eta gaztelerara ere sartu zen. Turkiara ere igaro zen eta hortik Afrikako Iparraldean zabaldu zen arabiarren artean. Eta Algeria Frantziaren menpe egonda, frantseserak ere hartu zuen hitza ‚spehi‘ forma eman da. Frantziatik 1872-86ko karlisten gerratean ere Hegoaldean sartu zen. Indian beste adierazi bat ere bazuen: mespretxuzko izena zen. Eta gaztelerak ere adierazi hori gorde izan du.

Beste hitz bat ere agertzen da euskal hitz bezala: ‚topo‘. Betulak tente jarri zitzaizkidan. Jaun honek filologia erromanikoa ikasi zuen Zaragozako unibertsitatean. Horrela agertzen da Tusquets argitaratzaileak iragarri duen F. Aramburu jaunaren biografian. Ni ez naiz hasiko nola sailkatzen dituen hizkuntzak, handiak, txikiak edo nolakoak diren. Baina jaun hau ‚Instituto Cervantes‘ erakundeko kidea da, eta gazteleraren irakaslea Alemanian. Eta errespetu pixka bat eskatzen diot gazteleraren gramatika erkatuari, eta hizkuntzalaritzari, zien-

tzia bezala. ‘Topo’ euskaraz satorra esaten da. Eta Donostiatik Hendaiara doan trenak tunel asko ditu eta herritarrek, ‘topo’ ezizena jarri zioten eta horrela jarraitzen du. Bestalde, jaun honek ikasiko zuen segur aski Zaragozan, Menéndez Pidal jaunaren ‘Manual de Gramática histórica española’. Liburu horretan, 9. atalean, 53-54 orrialdeetan eta 47. atalean 139-140 orrialdeetan hizkuntzalari ezagun horrek argi eta garbi azaltzen du izen honen sorrera eta garapena, erkaketaren legeak zehatz jarraituz. Latinezko talpa hitzak hispano-erromaniko herri latinean *TAUPA eman zuen, eta hortik taupo > topo.

Nobela honek badu beste gauza jakingarri bat irakurlearentzat. Tusquets argitaletxeak esaten du, nobela hau dela orain arte gazteleraz idatzitako munduan gehien saldu den liburua. Honek gainditu zuen idazlea Pío Baroja Nessi izan da, eta orain bigarren gelditzen da. Baina saltzaile horiek sagarren eta madarien batuketa egin dute. Pío Baroja, ‘el impío don Pío’, eta ‘el hombre malo de Itzea’ izan zen. Kristau batzuek eta kristau ez zirenek okerreko begiz begiratzten zuten Baroja. Nik zurrumurru bezala entzun dut inoiz, Nobel sarira aurkeztu nahi izan zutela batzuek, eta Espainiako idazle batzuk kontra jarri, eta horregatik ez zutela aurkeztu. Eta gainera, gerra garaian frankistek preso harrapatu zutela Doneztebe inguruan, eta heriotz arriskuan egon zela, eta hau historia da. Eskerrak frankista zentzudun batek idazle moduan ezagutzen zuen, eta horrek salbatu zuen. Baina 1910-1950 bitarteko Espainako nobelagilerik onenek maisu bezala hartu zuten. Garai hori azertu duten literatur kritikariek ia aho batez aitortzen dute. F. Arámbaru jauna, berriz, ‘Instituto Cervantes’ erakundeko kidea da. Baten batek Pío Barojarekin ere erkatu du. Baina edozein literatur kritikari zentzudun, konturatzen da antzik ere ez dagoela bien artean.

Kultura aipatu dut izenburuan. Juan Ignacio Pérez Iglesias jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko errektore ohiak, zientziaren zabalkunderako hitzaldiak antolatatu ditu. Lan bikaina

da. Baina nire ustez atal baten hutsunea dago. Zientzia fisiko-matematikoak jorratzen dituzte hizaldi horiek. Baina giza zientziak ere badaude. Esaterako, hizkuntzalaritza, historia, etnografia eta bakoitzaren barruan sartzen diren alderdi batzuk jorratzea aberasgarri litzatekeela uste dut.

Lantxo hau idazteko hurrengo liburuak begiratu behar izan ditut:

- J. COROMINAS eta J. A. PASCUAL, Diccionario crítico etimológico castellano et hispánico, 2005, Gredos, Madrid.
- ELEJALDE, Félix, Parroquia Altza San Marcial. Centenario VI Urteurrena, 1990 Donostia.
- MENENDEZ PIDAL, Manual de gramática histórica española, 1968, Espasa Calpe, Madrile, 13. argital.
- MICHELENA, Luis, Apellidos vascos, 2011, Txertoa, Donostia.
- SADA, Javier eta Asier, Historia de San Sebastián, 2008, Txertoa, Donostia.
- SECO, Manuel, Olimpia ANDRES eta Gabriel RAMOS, Diccionario del español actual, 1999, Aguilar, Madrile,

J.M. Etxebarria